



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2007ko apirilaren 30a

42. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Foru Legea, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa. Akats zuzenketa (3. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzutik Klinika Unibertsitariora ebakuntza egiteko eta erradioterapiarako, 2003. urtetik gaur arte, bideratu diren gaixoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, “Osasun laguntza beste zentroetan” izeneko kontusailaren –734.998 euro– aurrekontu bateratuari, baimenduari, erabiliari eta bete gabekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak menpekotasun egoeran dauden pertsonen buruzko azterlan edo txostenik egiteko agindua eman duen jakiteko. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, tratu txarrak jasan dituzten emakumeak babesteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Uharteko arte garaikideko zentroa eraikitzeke eta kudeatzeko finantziaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak informazioaren eta komunikazioaren teknologien arloko deialdia dela-eta egindako jarduketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Nafarroan dauden tokiko telebistek buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, jakiteko zer arrazoi egon den Nafarroako 2007ko aurrekontu orokorren proiektua taxutzean lehentasuna emateko Baluarte plaza zolatzeari. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, jakiteko zer arrazoi egon den Nafarroako 2007ko aurrekontu orokorren proiektua taxutzean lehentasuna emateko Barillasko eremu soziokulturalari. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, jakiteko zer arrazoi egon den Nafarroako 2007ko aurrekontu orokorren proiektua taxutzean lehentasuna emateko Ostiako San Gregorioren basilika zaharberritzeari. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, jakiteko zer arrazoi egon den Nafarroako 2007ko aurrekontu orokorren proiektua taxutzean lehentasuna emateko Corellako San Miguel eliza zaharberritzeari. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).

- Galdera, bide hezkuntzako monitore (erdi mailako teknikari) izateko lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, NUPeko prezioak ezarri dituen ekainaren 20ko 129/2006 ebazpena Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiak eta ez Hezkuntza kontseilariak eman izanari buruzko arrazoiak zein diren jakiteko. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Uharte, Egues eta Esteribarko bigarren hezkuntzako eskariari erantzuteko Hezkuntza Departamentuak dituen aurreikuspenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, jakiteko Ingurumena babesteko jarduera sailkatuen kontrolari buruzko abenduaren 5eko 16/1989 Foru Legeko 7. artikuluan xedatzen dena bete ote den Elerebro enpresari Castejónen zentral termiko bat jartzeko lizentzia ematean. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, ospitaleratu beharra eragin duten barizela eta meningitis kasuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuak Atarrabian bigarren hezkuntzako institutu bat eraikitzeke asmorik ote duen jakiteko. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren marketin eta publizitate kanpainaren helburuari, baliatu diren hedabideei eta aurrekontuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Bigarren Zabalguneko osasun etxearen aurrekontu eta azken kostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, Larrialdietarako Zerbitzu Berezia Bigarren Zabalguneko osasun etxean jarri ez izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Cascanten ikastetxeak eraikitzeke edo handitzeko duen aurreikuspenei eta egungo egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, zenbait ikastetxe eraiki edo handitzean izandako atzerapenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, Tafallan Nasuinsak sustatutako La Nava industrialdeko egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak Murugarrengo Kontzejuari 2003tik 2006ra bitarte emandako laguntza edo dirulaguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Murugarrengo Kontzejuari 2003tik 2006ra bitarte emandako laguntza edo dirulaguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak bidezainen etxeak izenekoetan egindako jarduketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak Nafarroako udalekin obrak edo zerbitzuak finantzatzeko aldera inolako akordio, konpromiso edo itunik hartu edo egin duen jakiteko. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- Galdera, Artaxoako udalerrian herrilurrak desafektatzeko espedientea tramitatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- Galdera, Toki Administrazioiko Departamentuak Nafarroako udalekin obrak edo zerbitzuak finantzatzeko aldera inolako akordio, konpromiso edo itunik hartu edo egin duen jakiteko. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- Galdera, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak Nafarroako udalekin obrak edo zerbitzuak finantzatzeko aldera inolako akordio, konpromiso edo itunik hartu edo egin duen jakiteko. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- Galdera, Toki Administrazioiko Departamentuak Murugarrengo Kontzejuari 2003tik 2006ra bitarte emandako laguntza edo dirulaguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuko administrazioaren antolaketari buruzko erregelamendua aldatzea (34. or.).
- Nafarroako Parlamentuko plantilla organikoa aldatzea (35. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Legea, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.**

### *AKATS ZUZENKETA*

Nafarroako ogasun publikoari buruzko Foru Legean akatsa atzeman denez -2007ko apirilaren 20ko 41. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen-, ondoko zuzenketa egin da aipatu foru legean:

21. artikuluko 1. idatz-zatiko bigarren lerrokadan

Gaztelaniazko testuan honakoa esan ordez: "... al corriente del pago de sus obligaciones tributarias..."

Honakoa esan behar du: "... al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias..."

Iruñean, 2007ko apirilaren 23an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

**Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzutik Klinika Unibertsitariora ebakuntza egiteko eta erradioterapiarako, 2003. urtetik gaur arte, bideratu diren gaixoei buruzkoa.**

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzutik Klinika Unibertsitariora ebakuntza egiteko eta erradioterapiarako, 2003. urtetik gaur arte, bideratu diren gaixoei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko azaroaren 6ko 93. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzutik Klinika Unibertsitariora, 2003. urtetik gaur egun arte, erradioterapia emateko eta ebakuntzak egiteko gaixoak bidaltze-ari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna.

HILABETEA	ESPEZIALITATE KIRURGIKOA	BIDALTZEKO ARRAZOIA	EGINDAKOAK	KOSTUA(*)
<b>URTARRILA</b>	TRAUMATOLOGIA	ITXARON ZERRENDA	6	15.867,40
	TRAUMATOLOGIA	OSASUN ARRAZOIAK	2	3.723,88
	KIRURGIA OROKORRA	ITXARON ZERRENDA	8	16.359,46
	KIRURGIA OROKORRA	OSASUN ARRAZOIAK	1	1.137,71
	KARDIOLOGIA	OSASUN ARRAZOIAK	3	26.178,43
	OFTALMOLOGIA	OSASUN ARRAZOIAK	2	2.281,84
	ORL	OSASUN ARRAZOIAK	5	95.969,45
	GINEKOLOGIA	OSASUN ARRAZOIAK	2	6.516,76
<b>OTSAILA</b>	TRAUMATOLOGIA	ITXARON ZERRENDA	7	26.630,68
	TRAUMATOLOGIA	OSASUN ARRAZOIAK	1	6.836,35
	KIRURGIA OROKORRA	ITXARON ZERRENDA	13	22.095,42
	KARDIOLOGIA	OSASUN ARRAZOIAK	2	9.449,10
<b>MARTXOA</b>	ORL	OSASUN ARRAZOIAK	1	201,92
	TRAUMATOLOGIA	ITXARON ZERRENDA	28	79.430,60
	TRAUMATOLOGIA	OSASUN ARRAZOIAK	3	2.891,45
	KIRURGIA OROKORRA	ITXARON ZERRENDA	38	71.258,99
	KIRURGIA OROKORRA	OSASUN ARRAZOIAK	1	1.717,03
	KARDIOLOGIA	OSASUN ARRAZOIAK	8	40.236,85
<b>APIRILA</b>	OFTALMOLOGIA	OSASUN ARRAZOIAK	1	2.903,59
	UROLOGIA	OSASUN ARRAZOIAK	1	6.020,60
	TRAUMATOLOGIA	ITXARON ZERRENDA	25	104.504,40
	TRAUMATOLOGIA	OSASUN ARRAZOIAK	1	6.836,35
<b>MAYATUA</b>	KIRURGIA OROKORRA	ITXARON ZERRENDA	28	4.477,21
	KARDIOLOGIA	OSASUN ARRAZOIAK	12	75.343,21
	DERMATOLOGIA	OSASUN ARRAZOIAK	2	762,62
	OFTALMOLOGIA	OSASUN ARRAZOIAK	1	2.775,26

HILABETEA	ESPEZIALITATE KIRURGIKOA	BIDALTZEKO ARRAZOIA	EGINDAKOAK	KOSTUA(*)
<b>MAIATZA</b>	TRAUMATOLOGIA	ITXARON ZERRENDA	38	183.159,95
	TRAUMATOLOGIA	OSASUN ARRAZOIAK	1	6.517,56
	KIRURGIA OROKORRA	ITXARON ZERRENDA	24	39.324,50
	KARDIOLOGIA	OSASUN ARRAZOIAK	2	7.071,67
	DERMATOLOGIA	OSASUN ARRAZOIAK	1	381,31
	ORL	OSASUN ARRAZOIAK	1	1.861,52
	NEFROLOGIA	OSASUN ARRAZOIAK	2	9.030,90
<b>EKAINA</b>	TRAUMATOLOGIA	ITXARON ZERRENDA	12	53.114,89
	KIRURGIA OROKORRA	ITXARON ZERRENDA	36	60.865,71
	KARDIOLOGIA	OSASUN ARRAZOIAK	4	18.520,28
	GINEKOLOGIA	OSASUN ARRAZOIAK	1	3.378,94
	ORL	OSASUN ARRAZOIAK	2	30.814,76
	OFTALMOLOGIA	OSASUN ARRAZOIAK	1	1.555,50
<b>UZTAILA</b>	TRAUMATOLOGIA	ITXARON ZERRENDA	12	75.238,08
	TRAUMATOLOGIA	OSASUN ARRAZOIAK	1	708,29
	KIRURGIA OROKORRA	ITXARON ZERRENDA	21	48.007,25
	KIRURGIA OROKORRA	OSASUN ARRAZOIAK	1	692,75
	KARDIOLOGIA	OSASUN ARRAZOIAK	13	95.014,00
<b>ABUZTUA</b>	TRAUMATOLOGIA	ITXARON ZERRENDA	4	24.821,62
	KIRURGIA OROKORRA	ITXARON ZERRENDA	14	31.268,71
	KARDIOLOGIA	OSASUN ARRAZOIAK	5	17.588,58
	GINEKOLOGIA	OSASUN ARRAZOIAK	1	3.378,94
	DERMATOLOGIA	OSASUN ARRAZOIAK	1	2.399,69
<b>IRAILA</b>	TRAUMATOLOGIA	ITXARON ZERRENDA	20	51.411,58
	KIRURGIA OROKORRA	ITXARON ZERRENDA	38	74.014,17
	KIRURGIA OROKORRA	OSASUN ARRAZOIAK	1	1.717,03
	KARDIOLOGIA	OSASUN ARRAZOIAK	8	86.095,16
	HEPATOLOGIA	OSASUN ARRAZOIAK	1	5.703,90
	ORL	OSASUN ARRAZOIAK	3	7.975,49

(\*) Nafarroako Klinika Unibertsitarioaren iraila arteko fakturazio datuak baino ez ditugu eskura.

(\*) OSASUN ARRAZOIAK: Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko laguntza espezializatuko medikuek arrazoi klinikoengatik bidalitako gaixok, itxaron zerrendarekin zerikusirik gabe.

HILABETEA	AZTERKETAK	BIDALTZEKO ARRAZOIA	EGINDAKOAK	KOSTUA(*)
<b>MARTXOA</b>	MAMOGRAFIA	ITXARON ZERRENDA	6	600,00
<b>APIRILA</b>	MAMOGRAFIA		85	9.500,00
<b>MAIATZA</b>	MAMOGRAFIA		75	8.400,00
<b>EKAINA</b>	MAMOGRAFIA	ITXARON ZERRENDA	45	4.980,00
<b>UZTAILA</b>	MAMOGRAFIA		45	4.800,00

(\*) Nafarroako Klinika Unibertsitarioaren iraila arteko fakturazio datuak baino ez ditugu eskura.

URTEA	EGINDAKOAK	KOSTUA(*)
<b>2003</b>	168	1.167.019,59
<b>2004</b>	176	1.237.299,71
<b>2005</b>	125	774.067,82
<b>2006</b>	471	1.574.039,29

(\*) Nafarroako Klinika Unibertsitarioaren iraila arteko fakturazio datuak baino ez ditugu eskura.

<b>KLINIKA UNIBERTSITARIOIRA BIDALITAKO ERRADIOTERAPIAKO GAIKOAK</b>			
<b>2006KO URTARRILAREN 1ETIK 2006KO URRIAREN 31RA</b>			
<b>HILABETEA</b>	<b>BIDALITAKO ERRADIOTERAPIAKO GAIKOEN KOPURUA</b>	<b>FAKTURATUTAKO TRATAMENDU KOPURUA</b>	<b>KOSTUA(*)</b>
<b>URTARRILA</b>	29	3	5.900,28
<b>OTSAILA</b>	22	16	39.698,66
<b>MARTXOA</b>	26	23	62.178,97
<b>APIRILA</b>	22	21	49.459,78
<b>MAIATZA</b>	39	25	78.236,49
<b>EKAINA</b>	32	12	40.878,54
<b>UZTAILA</b>	29	31	94.281,21
<b>ABUZTUA</b>	18	32	97.820,26
<b>IRAILA</b>	15	22	65.367,32

(\*) Nafarroako Klinika Unibertsitarioaren iraila arteko fakturazio datuak baino ez ditugu eskura.

<b>KLINIKA UNIBERTSITARIOIRA BIDALITAKO ERRADIOTERAPIAKO GAIKOAK</b>			
<b>2003-2004-2005-2006 URTEETAN</b>			
<b>URTEA</b>	<b>BIDALITAKO GAIKOEN KOPURUA</b>	<b>FAKTURATUTAKO TRATAMENDU KOPURUA</b>	<b>KOSTUA(*)</b>
<b>2003</b>	5	5	8.263,43
<b>2004</b>	31	31	55.881,00
<b>2005</b>	93	56	151.678,12
<b>2006</b>	258	185	533.821,51

(\*) Nafarroako Klinika Unibertsitarioaren iraila arteko fakturazio datuak baino ez ditugu eskura.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko azaroaren 23an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

## **Galdera, “Osasun laguntza beste zentroetan” izeneko kontusailaren –734.998 euro– aurrekontu bateratuari, baimenduari, erabiliari eta bete gabekoari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Foru parlamentari Elena Torres Miranda andre-ak galdera egin du “Osasun laguntza beste zentro-etan” izeneko kontusailaren –734.998 euro– aurre-kontu bateratuari, baimenduari, erabiliari eta bete gabekoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artiku-luan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlametu-ko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko azaroaren 6ko 93. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parla-mentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andre-ak galdera egin du 734.998 euro dituen “Beste zentro batzuetan emandako osasun laguntza” izeneko kontusailaren aurrekontu bate-ratua, baimendua, erabilia eta bete gabekoari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Gaur egun, aurrekontu bateratua 834.998 eurokoa da, eta 796.876,61 euro baimendu eta esleitu dira.

565.984,74 euro bete dira, eta horietatik 435.286,92 euro ordaindu dira; hona xehetasunak:

	Betebeharrekoa	Ordaindutakoa
San Miguel klinika	369.108,13	265.217,44
Donostiako Onkologia Institutua	48.557,22	47.173,93
Neuroangiografía Terapéutica, S.L.	39.540,21	39.540,21
Unidad Aragonesa Salud, S.L.	33.655,00	27.375,00
José Carreras fundazioa	21.102,33	11.554,67
Clínica Isidora, S.A.	20.411,00	18.944,62
Nafarroako Medikuen Elkargo Ofiziala	12.447,04	11.970,04
Bestelakoa	21.163,81	13.511,01

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlametu-ko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurren-goetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko azaroaren 23an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak menpekotasun egoeran dauden pertsonen buruzko azterlan edo txostenik egiteko agindua eman duen jakiteko.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du Nafarroako Gobernuak menpekotasun egoeran dauden pertsonen buruzko azterlan edo txostenik egiteko agindua eman duen jakiteko.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko azaroaren 20ko 100. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko abenduaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du jakiteko Nafarroako Gobernuak menpekotasun egoeran dauden pertsonen buruzko azterketa, lan edo txostenik egiteko agindua eman duen. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna:

1. Nafarroako Gobernuak eskatu al du menpekotasun egoeran dauden pertsonen buruzko azterketa, lan edo txostenik? Hala bada, nork eskatu du azterketa hori? Nori eskatu zaio? Zein da azterketaren xedea eta zein baldintzatan egiten ari da? Hala ez bada, ba al daki Nafarroako Gobernuak hainbat pertsona menpekotasuna dutenak bizi diren etxeetara joaten ari direla, Nafarroako Gobernuaren izenean? Kasu horretan, zer egingen du Gobernuak?

Hiru galderei erantzunez, adierazi behar da Nafarroako Gobernuak ez duela eskatu menpeko-

tasun egoeran dauden pertsonen buruzko inolako azterketa, lan edo txostenik. Bestalde, aipatu behar da Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak badakiela Nafarroako Enplegu Zerbitzua, INAFREekin (Nafarroako Prestakuntzarako eta Birziklatzerako Institutua) sinatutako hitzarmenaren bidez, enplegu eta menpekotasunari buruzko azterlan baten bigarren fasea egiten ari dela. Azterlan hori dela-eta, ausaz aukeratutako bizileku eta etxeetan elkarrizketak egiten ari dira, zonifikazio edo ibilbide irizpideak erabilita eta bizileku edo etxe horietan menpekotasuna duten pertsonak bizi diren kontuan izan gabe; elkarrizketa horien bidez ezagutu nahi dira egoera zehatzei erantzuna eman diezaieketen enplegu eta lan beharrak eta, halaber, enplegu eta prestakuntza guneen sorrera aztertu nahi da.

Elkarrizketa egiten denean, etxean menpekotasuna duen pertsonaren bat bizi den galdetzen da eta, hala bada, elkarrizketatuari honako beharri-kan subjektiboak dituen galdetzen zaio: laguntza profesionala, prestakuntza beharrak, laguntza ordu kopurua, eta abar; izan ere, azterlan horren helburua da kalitatezko enplegua sortzea menpekotasunari aurre egiteko laguntzaren arloan. INAFREren behatokiak maiz egin ohi ditu gizarteari buruzko azterketa sozialak; izan ere, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren kezketako bat da, ezin bestela izan, Nafarroako biztanle multzo guztiei zuzendutako lanpostu kualifikatuak sortzea.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko azaroaren 27an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria: María Isabel García Malo



## Galdera, tratu txarrak jasan dituzten emakumeak babesteari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du tratu txarrak jasan dituzten emakumeak babesteari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko azaroaren 10eko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko abenduaren 14an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei babes emateari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna:

1. Zer baldintza bete behar dira tratu txarrak jasaten dituen emakume batek babes pertsonala izan dezan?

Babes pertsonaleko neurriak dira segurtasun pribatuko –baina diru publikoarekin ordainduta– eskolta zerbitzu bat izatea; zerbitzua izaera progresiboko neurri multzo baten barruan dago, eta neurri horiek aplikatzen dira arriskua banaka aztertzean izandako emaitzen arabera; azterketa egiteko, aipatu arriskua modu objektiboan hartzea ahalbidetzen duten parametro batzuk aplikatzen dira.

2. Babes pertsonala izan nahi duen pertsonak non eskatu behar du?

Babes pertsonaleko neurriak aplikatzen dira Foruzaingoan edo epaitegian salaketa jarri bada. Une horretatik aurrera, hartu beharreko presako neurriak baztertu gabe, egoera zehatz bakoitza aztertzen da, eta, arriskua ebaluatzeko protokoloan oinarrituta, egoera bakoitzean egokienak diren neurriak hartzen dira.

3. Nafarroako Gobernuaren iritziz, zenbat pertsona egon daitezke babes pertsonala izateko beharrean?

Une honetan ezin da horren inguruko aurreikuspenik egin, baina, edonola ere, Nafarroako Gobernuak beharrezkoa den kasu guztietan eskolta zerbitzua emateko behar diren neurriak ezarriko ditu.

4. Zer baliabide ekonomiko eta giza baliabide daude eskaera horri erantzuteko?

Foruzaingoak gaur egun genero indarkeriaren kasuei aurre egiteko eskura dituen baliabideak gutxietsi gabe, Barne Zuzendaritza Nagusiaren 2007ko aurrekontuetan (herritarren segurtasunerako programa) hasieran 300.000 euro dituen kontusail bat aurreikusi da –kontusaila handitu daiteke–, segurtasun pribatuko enpresekin eskolta zerbitzuak kontratatzeko.

5. Gobernuak aztertu al du bestelako ekintzarik tratu txarrak jasaten dituzten pertsonen horiek saihesteko? Hala bada, gobernuak aztertzen ari den proposamenen zerrenda nahi dut.

Nafarroako Gobernuak izaera progresiboko eta kasu bakoitzean dagoen arriskuaren arabera banakako aplikazioa duten neurri batzuk prest ditu eta dagoeneko abian dira. Aipatu neurrietan, poliziaren nahiz esku hartu behar duten zerbitzuen berehalako jarduketarekin batera, honakoa aurreikusita dago: auto-babeserako neurriak hartzea, poliziaren zainketa eta kontrazainketa, alarma eta balizko biktimak lokalizatzeko sistemak jartzea eta, azkenik, eskolta zerbitzuaren bidezko babesak.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko abenduaren 1ean

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria: M.<sup>a</sup> Isabel García Malo

## **Galdera, Uharteko arte garaikideko zentroa eraikitze eta kudeatzeko finantziaketari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Foru parlamentari Miguel José Izu Beloso jaunak galdera egin du Uharteko arte garaikideko zentroa eraikitze eta kudeatzeko finantziaketari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko azaroaren 10eko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko abenduaren 14an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Izquierda Unida-Ezker Batua parlamentu-taldekak galdera –PES 358– egin du Uharteko arte garaikideko zentroarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak borondatea du Uharteko arte garaikideko zentroaren proiektua laguntzeko; horren adierazgarri da parlamentura bidalitako

2007ko aurrekontu lege proiektuan milioi bat euroko kontusail izendun bat sartu izana proiektu hori finantzatzeko.

2005eko ekainean, lehenbiziko harria jarri zenean, Sanz lehendakariak Nafarroako Gobernuak proiektu handi hori laguntzeko duen asmoa iragarri zuen; izan ere, proiektuak nazioartean gorantz doan arte garaikidea aztertzeraz, esperimenteraz eta erakustera zuzendutako ekipamendu berezia artikulatuko du Nafarroa osorako.

Datozen asteetan aurreikusita dago Nafarroako Gobernuak Uharteko arte garaikideko zentroko fundazioaren patronatua sartzera hiru ordezkariarekin; betiere, dagokion gonbidapen formalak jaso ondoren, joan den azaroan fundazioak egindako azken bilera lortu zuen akordioari jarraikiz.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko abenduaren 5ean

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleon

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak informazioaren eta komunikazioaren teknologien arloko deialdia dela-eta egindako jarduketei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Nafarroako Gobernuak informazioaren eta komunikazioaren teknologien arloko deialdia dela-eta egindako jarduketei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko azaroaren 20ko 100. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko abenduaren 14an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Avanza planaren esparruko Ciudades Singulares programari buruz. Hona Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna.

Erantzuna

1) Nafarroako Gobernuak aurkeztu al du jardun proposamenik deialdi horretan?

Bai

2) Hala bada, honakoa jakin nahi da: aukeratu-tako Nafarroako hiria eta proiektua, aurreikusitako inbertsioa, hautaketan jarraituriko irizpideak eta gobernuak eta departamentuak arlo horretan eginitako lana ezagutzeko baliagarriak diren datu guztiak.

“Ciudades Singulares” izeneko programaren deialdia –2006ko urriaren 6ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratua– toki entitateei zuzenduta dago; hain zuzen, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 3. artikuluan zehaztuta daudenei. Definizio horretan sartzen diren onuradunek laguntzak jaso ahalko dituzte 2005eko erroldaren arabera 20.000 eta 200.000 biztanleen artean baldin badituzte.

Hori dela-eta, Iruñeko eta Fiteroko udalek proiektu mota horietan parte hartzeko zuten interesa ezagututa, udal horiek eta Nafarroako Foru Diputazioak “Ciudades Singulares” deialdira laguntza jasotzeko eskaria aurkeztu dute “Nafarroako toki administrazioetan administrazio elektronikoko sistema garatzeko”, 2.000.000 euroko aurrekontuarekin.

Helburua da Nafarroako toki entitateen administrazio elektronikorako informazio-sistema bat garatzea eta ezartzea. Proiektuak bere baitan Iruña eta Fitero udalerrriak hartzen ditu, baina asmoa da Nafarroako bestelako toki entitateek ere konponbidea erabiltzeko aukera.

Entitateek ematen dituzten zerbitzuetan, hauek dira hobekuntzarik nabarmenenak:

– Administrazioa herritarrengana hurbiltzea. Administrazioa eguneko 24 orduetan eskura izatea.

– Parte-hartzaileen eragin-trukerako denborak murriztea.

– Parte-hartzaileen lan-karga murriztea.

– Izapideak erraztea.

– Erakundeak administratuenganako erabateko gardentasuna izatea. Modernotasun-irudia.

Ikuspegi horrek bidea ematen du erakunde gisa informazioaren gizartean duen posizioa hobetzeko, honako bidez:

– Erakunde publikoen eta horien menpeko entitateen arteko jarduketa, elkarlan, lankidetzeta, kudeatzeko gomendio eta helburu horietarako gaitutako bestelako tresnen bidez. Sistemen integrazioa eta teknologia berrien bidezko interkonektioa.

– Eskabideak modu telematikoa aurkeztea, berehalako erantzun zerbitzuak ezartzea, hainbat izapideren egoera kontsultatzea eta jakinarazpen elektronikoa.

– Toki zergei buruzko kontsultak eta ordainketa elektronikoa.

– Pertsona fisiko eta juridikoei buruzko datu-baseak; datu horiek saihesten dute dokumentuak behin eta berriz aurkeztea.

– Toki korporazioaren zerbitzuen kartak (kalitatezko prozedura eta konpromisoei buruzko informazio zehatza).

– Udal arduradunek udalerrian sortzen den kudeaketari buruzko informazio guztia on-line aztertzeko aukera izan dezaten beharrezkoak diren datuak lortzea.

3) Hala ez bada, zergatik Nafarroak ez du parte hartu behar Industria Ministerioak kofinanziatutako ekimen horretan?

Lehenbiziko eta bigarren galderari erantzuna eman eta gero ez dago hirugarren galdera honi erantzun eman beharrik.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko azaroaren 30ean

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

## **Galdera, Nafarroan dauden tokiko telebistei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du Nafarroan dauden tokiko telebistei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko azaroaren 20ko 100. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko abenduaren 14an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du telebistei emandako laguntzei buruz. Hona Toki Administrazioako kontseilari eta Nafarroako Gobernuaren eledunaren erantzuna.

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren datuen arabera, Nafarroako Foru Komunitatean bederatzi tokiko telebista daude gehi beste bi autonomikoak.

Legezkotasunari dagokionez, horietatik hiru telebistak ("Canal 4 Localia", "Canal 6 Navarra" eta

"Popular TV") baino ez dute nahitaezkoa den Nafarroako Gobernuaren emakida.

Ikus-entzunezkoak ekoizteko laguntzak ematen zaizkie lurreko telebista digitaleko emakidak dituzten entitateei; emakida horiek Nafarroako Gobernuak ematen ditu esparru autonomiko eta tokikoan, eta emakida jaso dutenak arestian aipatutako hiru entitateak dira.

2007. urteari dagokion ikus-entzunezkoak ekoizteko laguntzen deialdia egin gabe dago, Nafarroako Parlamentuak hori finantzatzera bideratutako kontusaila onetsi eta urte horretako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko proiektuan agertu arte.

Ziur aski, emakida emateko prozedura urriaren 25eko 76/2006 Foru Aginduan ezarritakoaren antzekoa izanen da; agindu horren bidez, urte horretako ikus-entzunezkoak ekoizteko laguntzen deialdia onetsi zen.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2006ko azaroan

Toki Administrazioako kontseilari eta Nafarroako Gobernuko eleduna: Alberto Catalán Higuera

## **Galdera, jakiteko zer arrazoi egon den Nafarroako 2007ko aurrekontu orokorren proiektua taxutzean lehentasuna emateko Baluarteko plaza zolatzeari.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak galdera egin du jakiteko zer arrazoi egon den Nafarroako 2007ko aurrekontu orokorren proiektua taxutzean lehentasuna emateko Baluarteko plaza zolatzeari.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna,

Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko azaroaren 24ko 103. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko abenduaren 14an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak galdera –PES 366– egin du 2007ko Nafarroako aurrekontu orokorren proiektuarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Ekonomia eta Ogasun kontseilari Francisco Javier Iribarren Fentanes jaunak agerraldia egin zuen Parlamentuan 2007ko Nafarroako aurrekontu orokorren lege proiektuaren ezaugarriak eta edukia azaltzeko; beraz, galdera aipatutako egun horretan egin zitekeen.

Edonola ere, aipatu araua oraindik parlamentuan eztabaidatzen ari denez, uste dugu bertan aurkeztu behar dela 2007ko Nafarroako aurrekontu orokorrei buruzko foru lege proiektuarekin lotutako edozein gai parlamentariak –legez hala dagokie– eztabaida dezaten.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko abenduaren 5ean

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleon

---

## **Galdera, jakiteko zer arrazoi egon den Nafarroako 2007ko aurrekontu orokorren proiektua taxutzean lehentasuna emateko Barillasko eremu soziokulturalari.**

**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak galdera egin du jakiteko zer arrazoi egon den Nafarroako 2007ko aurrekontu orokorren proiektua taxutzean lehentasuna emateko Barillasko eremu soziokulturalari.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko azaroaren 24ko 103. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko abenduaren 14an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak galdera –PES 368– egin du 2007ko Nafarroako aurrekontu orokorren proiektuarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Ekonomia eta Ogasun kontseilari Francisco Javier Iribarren Fentanes jaunak agerraldia egin zuen Parlamentuan 2007ko Nafarroako aurrekontu orokorren lege proiektuaren ezaugarriak eta edukia azaltzeko; beraz, galdera aipatutako egun horretan egin zitekeen.

Edonola ere, aipatu araua oraindik parlamentuan eztabaidatzen ari denez, uste dugu bertan aurkeztu behar dela 2007ko Nafarroako aurrekontu orokorrei buruzko foru lege proiektuarekin lotutako edozein gai, parlamentariak –legez hala dagokie– eztabaida dezaten.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko abenduaren 5ean

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

## **Galdera, jakiteko zer arrazoi egon den Nafarroako 2007ko aurrekontu orokorren proiektua taxutzean lehentasuna emateko Ostiako San Gregorioren basilika zaharberritzeari.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak galdera egin du jakiteko zer arrazoi egon den Nafarroako 2007ko aurrekontu orokorren proiektua taxutzean lehentasuna emateko Ostiako San Gregorioren basilika zaharberritzeari.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko azaroaren 24ko 103. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko abenduaren 14an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak galdera –PES 369– egin du 2007ko Nafarroako aurrekontu orokorren proiektuarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Ekonomia eta Ogasun kontseilari Francisco Javier Iribarren Fentanes jaunak agerraldia egin zuen Parlamentuan 2007ko Nafarroako aurrekontu orokorren lege proiektuaren ezaugarriak eta edukia azaltzeko; beraz, galdera aipatutako egun horretan egin zitekeen.

Edonola ere, aipatu araua oraindik parlamentuan eztabaidatzen ari denez, uste dugu bertan aurkeztu behar dela 2007ko Nafarroako aurrekontu orokorre buruzko foru lege proiektuarekin lotutako edozein gai, parlamentariak –legez hala dagokie– eztabaida dezaten.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko abenduaren 5ean

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

## **Galdera, jakiteko zer arrazoi egon den Nafarroako 2007ko aurrekontu orokorren proiektua taxutzean lehentasuna emateko Corellako San Miguel eliza zaharberritzeari.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak galdera egin du jakiteko zer arrazoi egon den Nafarroako 2007ko aurrekontu orokorren proiektua taxutzean lehentasuna emateko Corellako San Miguel eliza zaharberritzeari.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko azaroaren 24ko 103. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko abenduaren 14an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak galdera –PES 370– egin du 2007ko Nafarroako aurrekontu orokorren proiektuarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Ekonomia eta Ogasun kontseilari Francisco Javier Iribarren Fentanes jaunak agerraldia egin zuen Parlamentuan 2007ko Nafarroako aurrekontu orokorren lege proiektuaren ezaugarriak eta edukia azaltzeko; beraz, galdera aipatutako egun horretan egin zitekeen.

Edonola ere, aipatu araua oraindik parlamentuan eztabaidatzen ari denez, uste dugu bertan aurkeztu behar dela 2007ko Nafarroako aurrekontu orokorre buruzko foru lege proiektuarekin lotutako edozein gai, parlamentariak –legez hala dagokie– eztabaida dezaten.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko abenduaren 5ean

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

## **Galdera, bide hezkuntzako monitore (erdi mailako teknikari) izateko lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdiari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Foru parlamentari Miguel José Izu Beloso jaunak galdera egin du bide hezkuntzako monitore (erdi mailako teknikari) izateko lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdiari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko azaroaren 24ko 103. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko abenduaren 15ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel José Izu Beloso jaunak galdera egin du bide hezkuntzako monitore (erdi mailako teknikaria) izateko lanpostu bat betetzeko oposizio-lehiaketarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna.

Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak emandako informazioaren arabera, ondorio hauek aterata dira:

1. Zergatik aipaturiko oposizio-lehiaketa prozedura hiru urte baino gehiago atzeratu da?

Aipatu deialdiaren ebazpena atzeratu da deialdiaren aurkako bi prozedura judizial hauek, bakoitza bere aurretiko administrazioarekiko errekurtsorekin, izan direlako:

A) José Javier Barinaga Adrián jaunak, Nafarroako Comisiones Obreras sindikatuko ordezkari gisa, 92/2004 zenbakiko prozedura laburtuko

administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zuen Iruñeko 2. administrazioarekiko auzien epaitegian; errekurtsu hori jarri zen Nafarroako Gobernuak 2004ko apirilaren 19an hartutako akordioaren aurka, zeinaren arabera CC.OO sindikatuak aipatu deialdiaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsua ez baitzen onartu, legitimitaterik ez izateagatik.

2004ko irailaren 1ean, aipatu epaitegiak erabat ezetsi zuen jarritako errekurtsua. Errekurtso-egileak aipatu epaia Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan apelatu zuen; 2004ko abenduaren 17an, jarritako errekurtsua onartu zen; izan ere, epai horren arabera Comisiones Obreras sindikatuak legitimitatea du deialdiaren aurka egiteko eta, beraz, sindikatuak jarritako gora jotzeko errekurtsua onartu behar da eta gaiaren funtsari buruz ebatzi behar da.

B) José Javier Barinaga Adrián jaunak, Nafarroako Comisiones Obreras sindikatuko ordezkari gisa, 278/2005 zenbakiko prozedura arrunteko administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri zuen Iruñeko 2. administrazioarekiko auzien epaitegian; errekurtsu hori jarri zen Nafarroako Gobernuak 2005eko apirilaren 11n hartutako akordioaren aurka, zeinaren arabera aipatu sindikatuak deialdiaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsua ezetsi baitzen.

2006ko maiatzaren 9an, aipatu salak Comisiones Obreras sindikatuak jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ezetsi zuen eta Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiaren 2003ko ekainaren 9ko Ebazpena, bide hezkuntzako monitore (erdi mailako teknikaria) izateko lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia onetsi zuena, zuzenbidearen arabera eman dela ebatzi zuen.

2. Zergatik probak ez ziren 2003ko irailean hasi?

Oposizio-lehiaketa ez zen 2003ko irailean hasi bertan behera utzia zegoela ulertu behar zelako; izan ere, Comisiones Obreras sindikatuak 2003ko uztailaren 17an deialdiaren aurka jarritako lehen gora jotzeko errekurtsioan hori ebatzi arte deialdia gelditzeko eskatu zen.

Deialdia bertan behera uzteko eskaria zela-eta, inolako ebazpenik gabe hogeita hamar egun igaro zirenez, Herri administrazioen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 111.3. artikuluan ezarritakoari jarraituz, deialdia automatikoki bertan behera gelditu zen.

Horren ondorioz, hautapen prozesua baino lehenago egin behar diren deialdian onartu eta baztertu diren izangaien behin-behineko eta behin betiko zerrendak ez ziren onetsi.

3. Zergatik ezarri zen 2005eko otsailaren 7a lehen ariketa egiteko egun gisa, gora jotzeko errekurtsioa ebatzi gabe bazegoen?

Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak abenduaren 20an emandako 2878/2004 ebazpenaren bidez, deialdian onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsi zuen eta oposizioko lehen ariketa egiteko eguna ezarri zuen, 2005eko otsailaren 7a, hain zuzen. Ebazpena eman zen egunean, ez zen deialdiaren aurkako ebatzi gabeko gora jotzeko errekurtsorik; izan ere, lehenengo atalean aipatutako bi prozedura judizialen lehenengoan, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren epaia, gaiaren funtsari buruz ebaztera behartzen zuena, jakitera emana gabe zegoen.

4. Zergatik probak ez ziren 2005eko otsailaren 7an hasi?

Probak ez ziren aipatu egunean hasi 2005eko urtarrilaren 19an Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 2004ko abenduaren 17ko epaia jakinarazi zelako, zeinaren

arabera Comisiones Obreras sindikatuak jarritako errekurtsioa onetsi baitzen lehenengo atalean adierazitako ondorioekin.

Epaia agindua eman zuen gora jotzeko errekurtsioa onartzeko eta gaiaren funtsari buruz ebazteko; hori dela-eta, epaia jakitera eman eta gero, ulertu zen deialdia bertan behera uzteko erabakia, bigarren atalean aipatutakoa, berriro indarrean zegoela.

5. Zergatik Nafarroako Gobernuak hain ardua gutxi erakutsi du deialdiaren aurka aurkeztutako gora jotzeko errekurtsioa ebazterakoan?

Ebazpena ez da atzeratu ardua gutxi izateagatik, baizik eta, arestian adierazi denez, deialdi berari buruzko bi prozedura administratibo eta judizial batera abian direlako, bakoitzari dagozkion ondorioekin.

6. Zergatik eten da deialdia etetearen erabakia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu gabe?

2. eta 4. ataletan adierazi denez, deialdia bertan behera utzi da bi epealditan Herri administrazioen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 111.3. artikuluan ezarritakoari jarraituz, deialdia bertan behera uzteko berriazko erabakirik ez egon arren.

7. Egin al da urratsik prozedura honen izapidez zean diziplina ardurarik izan ote den jakiteko?

Ez da inolako urratsik egin arlo horretan; izan ere, aurreko ataletan adierazitako gorabehera guztiak kontuan izanik, uste dugu ez dagoela horretarako arrazoirik.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko abenduaren 13an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria:  
Javier Caballero Martínez



## **Galdera, NUPeko prezioak ezarri dituen ekainaren 20ko 129/2006 ebazpena Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiak eta ez Hezkuntza kontseilariak eman izanari buruzko arrazoiak zein diren jakiteko.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du NUPeko prezioak ezarri dituen ekainaren 20ko 129/2006 ebazpena Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiak eta ez Hezkuntza kontseilariak eman izanari buruzko arrazoiak zein diren jakiteko.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko azaroaren 10eko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du jakiteko zergatik ekainaren 20ko 129/2006 Ebazpena, zeinak 2006-2007 ikasturteko Nafarroako Unibertsitate Publikoaren prezio publikoak finkatzen dituena, Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiak eman duen. Hona Hezkuntza kontseilariaren erantzuna:

Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiaren ebazpenaren bidez prezioak eta titulu ofizialak eskuratzeko gainerako eskubiak eguneratzen dira, baina ez dira, inolaz ere, prezio publiko berriak ezartzen.

Beraz, oraingo kasu honetan aldi berean gertatzen diren elementuak aintzat hartu behar dira irizteko Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiak, legeak eta aplikatzekoak diren erregelamenduek ezarritako mugekin, eskuмена duela prezio publikoen –arauak eta haren araberrako irizpideek edo mugek aldezturik finkatuak– eguneratzea onesteko.

Horri dagokionez, kontuan izan behar da ebazpenak 2006-2007 ikasturterako Nafarroako Unibertsitate Publikoaren prezioetan aplikatu behar den igoera baino ez duela ezarri, betiere, Unibertsitateak Koordinatzeko Kontseiluak finkatutako muga barruan; halaber, kontuan izan behar da ebazpenak 2006-2007 ikasturtean baino ez duela indarrik izanen eta, beraz, epe hori betetzean bukatuko dela ebazpenaren eraginkortasuna.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko azaroaren 20an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

## **Galdera, Uharte, Egues eta Esteribarko bigarren hezkuntzako eskariari erantzuteko Hezkuntza Departamentuak dituen aurreikuspenei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Foru parlamentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du Uharte, Egues eta Esteribar-ko bigarren hezkuntzako eskariari erantzuteko Hezkuntza Departamentuak dituen aurreikuspenei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko azaroaren 10eko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parla-

mentari Miguel José Izu Belloso jaunak galdera egin du Uharten bigarren hezkuntza jasotzeko dagoen eskaerari erantzuna emateari buruz. Hona Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

Eskolatze-aurreikuspenak aztertuta, Hezkuntza Departamentuaren ustez, Uharteko eta ondoko herrietako ikasleen bigarren hezkuntzan eskolatzeko eskariari erantzuna emateko, nahikoa da Uharteko eta Burlatako ikastetxeek eta Mendillorriko BHI berriak eskaintzen duten hizkuntza-eskaintza.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko abenduaren 12an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

## **Galdera, jakiteko Ingurumena babesteko jarduera sailkatuen kontrolari buruzko abenduaren 5eko 16/1989 Foru Legeko 7. artikuluan xedatzen dena bete ote den Elerebro enpresari Castejónen zentral termiko bat jartzeko lizentzia ematean.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervás jaunak galdera egin du jakiteko Ingurumena babesteko jarduera sailkatuen kontrolari buruzko abenduaren 5eko 16/1989 Foru Legeko 7. artikuluan xedatzen dena bete ote den Elerebro enpresari Castejónen zentral termiko bat jartzeko lizentzia ematean.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko azaroaren 24ko 103. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Aralar parlamentuko-taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervás jaunak galdera batzuk egin ditu Ingurumena babesteko jarduera sailkatuen kontrolari buruzko abenduaren 5eko 16/1989 Foru Legearen 7. artikuluan xedatutakoa betetzeari buruz. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

1.- Elerebro enpresaren zentral termikoko bigarren taldeari jardueraren lizentzia eman zitzaionean, 2006ko urtarrilaren 23an, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak eskatu al zien jardueraren sustatzaileei fidantzarik edo asegururik?

Departamentu honen iritziz, industria instalazioetan izandako istripuek, matxurek edo anomaliak ingurumenean edo pertsonen osasunean eragin ditzaketan kalteak instalazioen jabeak sinatutako erantzukizun zibil eta ingurumeneko aseguru baten bidez estali behar dira.

Gaur egun arte, eta oro har, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren irizpidea izan da aseguru mota hori eskatzea arau zehatz batek berariaz hori jasotzen duen kasuetan.

Hondakin arriskutsuak kudeatzen eta ekoizten dutenei erantzukizun zibileko aseguru bat eskatzea ezarrita duen ingurumen arloko arau bakarra Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legea da.

Elereboren ziklo konbinatuko zentral termikoaren kasuan, urteko 10.000 kg. hondakin arriskutsu ekoizteagatik, Hondakin Arriskutsuei buruzko Erregelamendua onetsi zuen uztailaren 20ko 833/1998 Dekretuan ezarritakoari jarraikiz, hondakin arriskutsuen ekoizle txikitat hartzen da; horren ondorioz, instalazio horrek ez du egin behar hondakin arriskutsuak ekoiztetik eratorritako erantzukizunak estaliko dituen aseguru bat.

2.- 16/1989 foru araua indarrean egon den bitartean, zenbat fidantza ezarri dira? Zer jarduera sailkatu ezarri zaizkie?

1989ko abenduaren 16tik, abenduaren 5eko 16/1989 Foru Legeak indarra hartu zuen egunetik alegia, departamentu honek 258 fidantza jartzeko beharra ezarri du; fidantzak erauzketa sektoreko (meategiak, harrobiak eta legar-hobiak) jarduera sailkatuei baino ez dizkie ezarri.

3.- Zer irizpide erabiltzen ditu kontseilariak fidantzak eskatzeko jarduera sailkatuen arloan?

Departamentuaren iritziz, fidantza bat ezartzaren helburua da jarduera bat bertan behera uzteak ingurumenaren gainean eragin ditzakeen kalte-

ak zuzentzen direla bermatzea instalazioaren jabeak erantzukizuna bere gain hartzen ez duen kasuetan.

Kasu horietan, administrazioak erabili ahalko du jarritako fidantza lan batzuk ordaintzeko, besteak beste, eraikin eta instalazioak eraisteko, erauzketa jarduerak egin diren eremuak berritzeko, lur kutsatuak lehengoratzeko edo utzitako hondakinak kudeatzeko.

Gaur egun arte, eta oro har, departamentu honen irizpidea izan da fidantza ekonomikoa eskatzea arau zehatz batek berariaz hori jasotzen duen kasuetan.

Hondakin arriskutsuak kudeatzen dutenei bakarrik fidantza bat eskatzea ezarrita duen ingurumen arloko arau bakarra Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legea da.

Bestalde, zenbait legedi sektorialek ere ingurumen arazoak direla-eta fidantza bat ematea aurreikusten dute, esaterako meatzaritzaren sektorekoak. Hori dela-eta, departamentuak erauzketa jardueren (meategiak, harrobiak eta legar-hobiak) kasuan fidantza eskatu du.

4.- Eskatu al zitzaizen fidantzarik edo aseguru kontratatzerik Elerebro zentralaren lehen taldeari, edota Castejónen dagoen Iberdrolaren ziklo konbinatuko zentral termikoari?

Aurreko erantzunetan azaldutako irizpideei jarraikiz, bi kasu horietan ez zen fidantzarik ez aseguru eskatu.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko abenduaren 12an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: José Andrés Burguete Torres

## **Galdera, ospitaleratu beharra eragin duten barizela eta meningitis kasuei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Foru parlamentari Helena Santesteban Guelbenzu andreak galdera egin du ospitaleratu beharra eragin duten barizela eta meningitis kasuei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko azaroaren 24ko 103. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Santesteban Guelbenzu andreak galdera egin du ospitaleratu beharra eragin duten barizela eta meningitis kasuei buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

2005eko azaroaren 1etik 2006ko urriaren 31ra bitarte, 4.577 barizela kasu artatu dira oinarritzko laguntzan.

2005eko azaroaren 1etik 2006ko urriaren 31ra bitarte, barizela zela-eta 4.704 bisita izan ziren oinarritzko laguntzan, eta horietatik 3.948 (% 84) hamar urte baino gutxiagoko gaixoak izan ziren.

2005ean (urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra), barizela zela-eta 22 gaixo ospitaleratu behar izan ziren ospitale publikoetan. 22 gaixo horietatik 15ek (% 68,2) 10 urte baino gutxiago zituzten.

Ospitaleratutako 22 kasu horietatik, 13k konplikaziorik gabeko barizela izan zuten, gaixo batek barizela osteko entzefalitis bat garatu zuen, 4 gaixok pneumonia hemorragikoa izan zuten eta 3 gaixok pneumonitis eta entzefalitis ez ziren bestelako konplikazioak izan zituzten.

2006. urtean, haurren artean ez da pneumokoek eragindako meningitis kasurik izan.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko abenduaren 15ean

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

## **Galdera, Hezkuntza Departamentuak Atarrabian bigarren hezkuntzako institutu bat eraikitzeke asmorik ote duen jakiteko.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Hezkuntza Departamentuak Atarrabian bigarren hezkuntzako institutu bat eraikitzeke asmorik ote duen jakiteko.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko azaroaren 24ko 103. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko abenduaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Aralar parlamentu-taldeko Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera bat egin du Atarrabian, epe laburrean, D ereduko ikasleen eskaerari erantzuteko, bigarren hezkuntzako institutu bat eraikitzeke dagoen asmoari buruz. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

Hezkuntza Departamentuaren iritiz, eskualdeko eskolatze-aurreikuspenak aztertuta, D ereduko ikasleen eskaerari erantzuteko ez da beharrezkoa, epe laburrean, Atarrabian bigarren hezkuntzako institutu bat eraikitzea; izan ere, gaur egungo eta

etorkizuneko eskaintzak eskaerari erantzuteko bidea ematen du.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan

xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko abenduaren 18an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

## **Galdera, Nafarroako Gobernuaren marketin eta publizitate kanpainaren helburuari, baliatu diren hedabideei eta aurrekontuari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuaren marketin eta publizitate kanpainaren helburuari, baliatu diren hedabideei eta aurrekontuari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko azaroaren 24ko 103. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko abenduaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du zenbait publizitate tarteri buruz. Hona hemen Toki Administrazioako kontseilari eta Nafarroako Gobernuaren eledunaren erantzuna:

Iruñeko Bigarren Zabalguneko osasun etxe berria eta Ebro Behereko araztegia prentsan iragartzeko jatorrizko publizitatea Nafarroako Gobernuak herritarrei azpiegitura berriei buruz informatzeko erabiltzen dituen izaera instituzionaleko iragarkien barruan dago. Kasu guztietan, abian jarritako proiektuei buruzko datak, zenbatekoak eta interes orokorreko bestelako datuak ematen

dira eta "guztion ahaleginarekin" lortu direla azpimarratzen da.

Iruñeko Bigarren Zabalguneko osasun etxeari buruzko iragarkiak "Diario de Navarra" eta "Diario de Noticias" egunkarietan argitaratu ziren.

Bestalde, Ebro Behereko araztegiari buruzko iragarkiak "Diario de Navarra", "Diario de Noticias", "Plaza Nueva", "Ribera Navarra" eta "La Voz de la Ribera" hedabideetan argitaratu ziren.

Galderak aipatzen dituen bi iragarkiak sartzearen kostua 12.021,75 eurokoa izan da, honela banatuta:

	II. Zabalguneko osasun etxea	Ebro Behereko araztegia
Diario de Navarra	4.158,00 €	3.321,00 €
Diario de Noticias	2.013,75 €	1.710,00 €
Plaza Nueva		299,00 €
Ribera Navarra		300,00 €
La Voz de La Ribera		220,00 €

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2006ko abenduan

Toki Administrazioako kontseilari eta Nafarroako Gobernuko eleduna: Alberto Catalán Higuera

## **Galdera, Bigarren Zabalguneko osasun etxearen aurrekontu eta azken kostuari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Foru parlamentari Elena Torres Miranda andre-  
ak galdera egin du Bigarren Zabalguneko osasun  
etxearen aurrekontu eta azken kostuari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artiku-  
luan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna,  
Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlametu-  
ko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.  
Galdera 2006ko abenduaren 1eko 106. Nafarroa-  
ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu  
zen.

Iruñean, 2006ko abenduaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parla-  
mentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres

Miranda andre-  
ak galdera egin du Bigarren Zabal-  
guneko osasun etxearen aurrekontu eta azken  
kostuari buruz. Hona Osasun kontseilariaren eran-  
tzuna:

Bigarren Zabalguneko osasun etxearen aurre-  
kontu osoa 3.446.816 eurokoa zen.

Aipatu osasun etxearen amaierako kostua  
3.478.467 eurokoa izan da, honela banatuta:

– Eraikitze lanak: 3.111.530 euro.

– Ekipamendua eta altzariak: 366.937 euro.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlametu-  
ko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurren-  
goetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko abenduaren 22an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

## **Galdera, Larrialdietarako Zerbitzu Berezia Bigarren Zabalguneko osasun etxean jarri ez izanari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Foru parlamentari Elena Torres Miranda andre-  
ak galdera egin du Larrialdietarako Zerbitzu Bere-  
zia Bigarren Zabalguneko osasun etxean jarri ez  
izanari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artiku-  
luan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna,  
Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlametu-  
ko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.  
Galdera 2006ko abenduaren 1eko 106. Nafarroa-  
ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu  
zen.

Iruñean, 2006ko abenduaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parla-  
mentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres  
Miranda andre-  
ak galdera egin du Bigarren Zabal-  
guneko osasun etxean Larrialdietarako Zerbitzu

Berezia ez jartzeko arrazoiei buruz. Hona Osasun  
kontseilariaren erantzuna:

Larrialdietarako Zerbitzu Berezia –herriarrei  
zuzeneko arreta eskaintzeko profesionalak bertan  
egotea– General Solchaga anbulatorioan manten-  
tzeko hainbat arrazoi izan dira:

– General Solchaga anbulatorioa Iruñerriko  
herriarren ospitalez kanpoko larrialdietako osasun  
laguntzarako erreferentzia-gune gisa mantentzea,  
toki berean abian daraman 25 urte baino gehiago-  
etan gertatu den antzera.

– Herriarren larrialdietako zerbitzuetara heltze-  
ko erraztasuna mantentzea; izan ere, General Sol-  
chaga anbulatorioa leku egokian kokatuta dago  
Iruñera Nafarroa Behereko etorbide-  
tik sartzen diren Iruñerriko bizilagun askorentzat.  
Hori erabat egiaztatu da larrialdietarako zerbitzua bertan egon  
den urteetan.

– Larrialdietarako Zerbitzu Bereziko profesio-  
nalen gaitasun erabakitzailea mantentzea; izan

ere, General Solchaga anbulatorioan erradiologia erabiltzeko aukera dute eta horrek diagnostikoa egiteko eta tratamendu egokia emateko orduan asko laguntzen du.

Hori guztia dela-eta, Larrialdietarako Zerbitzu Berezia General Solchaga anbulatorioan mantentzeak dakartzan onurak, edozein obrak eragiten dituen kalteak gorabehera, beste edozein alternatibarenak baino handiagoak zirela iritzi zen, hala profesionalentzat nola gaixoentzat; beraz, gaur egungo kokalekua mantentzea erabaki zen.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Oinarrizko Osasun Laguntzaren Zuzendaritzak onetsitako kronogramari jarraikiz, aipatu zentro eta zerbitzuan urtariletik aurrera egin behar diren birmoldatze obrei ekin baino lehen, azaroaren 30ean

Larrialdietarako Zerbitzu Berezia General Solchaga anbulatorioko lehen solairura behin-behineko lekualdatu zen obrak bukatu arte.

Zentroko Zuzendaritzak eta zerbitzuko ardura-dunek obrak direla-eta hartutako erabaki eta egingako jarduketa guztien berri eman diete Larrialdietarako Zerbitzu Bereziko langileei.

Azkenik, azpimarratu behar dugu obra horrek ospitalez kanpoko larrialdi laguntzaren kalitatea nabarmen hobetuko duela.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko abenduaren 22an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

---

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak Cascanten ikastetxeak eraikitzeke edo handitzeko duen aurreikuspenei eta egungo egoerari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak Cascanten ikastetxeak eraikitzeke edo handitzeko duen aurreikuspenei eta egungo egoerari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko abenduaren 1eko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko abenduaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Carlos Cristóbal

jaunak galdera egin du Cascanten ikastetxeak eraiki edo handitzeari buruz. Hona Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

Hezkuntza Departamentuak Cascanten haur eta lehen hezkuntzako ikastetxe publiko berri bat eraikitzea planifikatu du.

Hezkuntza Departamentuak aurreikusi du proiektua 2007. urtean esleitzea eta ondoren, ikastetxea 2008 eta 2009an eraikitzea.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko abenduaren 18an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

## **Galdera, zenbait ikastetxe eraiki edo handitzean izandako atzerapenei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak galdera egin du zenbait ikastetxe eraiki edo handitzean izandako atzerapenei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko abenduaren 1eko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko abenduaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galde du Iruñerrian ikastetxeak eraikitze edo handitzeko obren aurreikuspenei eta egoerari buruz. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna:

Galderan eta Nafarroako Gobernuak joan den otsailaren 16an Parlamentuko Osoko Bilkuran emandako erantzunean aipatutako Iruñerrian ikastetxeak eraikitze edo handitzeko obren aurreikuspena eta gaur egungo egoera honakoa da:

Berriozarko Mendialdea ikastetxe publikoa:

Jabelduran iragarritako ikastetxe publikoa handitzeko epeak bete dira; izan ere, 2006/2007 ikasturte honetan funtzionatzen ari da. Ikastetxe berria prest egonen da 2009. urterako.

Buztintxuriko ikastetxe berria

Epeak betetzen ari dira. Aurreikusita dago 2008/2009 ikasturtearen hasieran abian jartzea.

Ezkabako ikastetxe berria

Epeak betetzen ari dira. Obra esleitzeko lehia-keta-fasean dago. Aurreikusita dago 2007/2008 ikasturtearen hasieran abian jartzea. Bestalde, Parlamentuko Osoko Bilkuran iragarri zen bezala,

2012. urterako Ezkaban BHI bat eraikitzea aurreikusita dago.

Sarrigurengo ikastetxe berriak

Aurreikusitako epeak betetzen ari dira. 2006ko otsailaren 1eko Hezkuntza Batzordean iragarri zen bezala, 0tik 3 urtera bitarteko bi ikastetxeetako bat 2007-2008 ikasturtean jarriko da abian eta ikastetxe berria 2008-2009 ikasturtean. Bestalde, BHI bat eraikitze lurzoru-erreserba egin da.

Mendillorriko bigarren hezkuntzako institutu berria.

Epeak betetzen ari dira eta aurreikusita dago 2007/2008 ikasturtean abian jartzea.

Eraikin berri bat Zizurko eskola barrutian.

Epeak betetzen ari dira eta aurreikusita dago 2007/2008 ikasturtean abian jartzea. Bigarren Hezkuntzan dauden beharrak direla-eta, aurreikusita dago BHIa 2009. urterako handitzea.

Mutiloabeiti

Osoko Bilkuran iragarri zen erabilera anitzeko aretoa 2006. urterako bukatuko da. Ikastetxea handitzeko bigarren fasea, iragarri bezala, 2008. urtean egingen da.

Uharteko Virgen Blanca Ikastetxea handitzea

Hezkuntza Departamentuak 2008. urterako aurreikusitako eta iragarritako obren ardua duen herriko udalarekin hitzarmen bat sinatu du.

Buztintxuriko bigarren hezkuntzako institutu berria eta Zizurko Ardoi urbanizazioko ikastetxe berria eskola azpiegituren plan zuzendariaren bigarren faserako iragarri ziren; hortaz, 2009. urte-tik aurrera proiektatu eta eraikiko dira.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduen 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko abenduaren 20an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco



## **Galdera, Tafallan Nasuinsak sustatutako La Nava industrialdeko egoerari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Foru parlamentari Elma Sáiz Delgado andreak galdera egin du Tafallan Nasuinsak sustatutako La Nava industrialdeko egoerari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko abenduaren 1eko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko abenduaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elma Saiz Delgado andreak galdera egin du Tafallan Nasuinsak sustatutako La Nava industrialdeko egoerari buruz. Hona hemen Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariaren erantzuna.

#### **1. galdera.**

Galdera Nasuinsa Tafallako Udalarekin batera aztertzen ari den industrialdeari buruz dela ulertu dugu. Egoera honakoa da:

2004ko otsailaren 10ean Tafallako Udalak eta Nasuinsak jarduketa protokolo bat sinatu zuten. Protokolo horren arabera, Nasuinsa eremu horretan industrialde bat eraikitzeak aukera erreala egiaztatze bideragarritasun azterlan bat egiteaz arduratuko zen.

Protokolo horren ondorioz, 2004ko abuztuaren 23an, Nasuinsak Tafallako Udalarari bideragarritasun azterlana bidali zion. Tafallako Udalak, 2005eko urtarrilaren 19an, azterlana eta kokalekuen lehentasuna onartu zituen.

Jarduketaren bideragarritasuna, neurri handi batean, Tafallako etorkizuneko hiri garapenean ere eragina zuten azpiegiturak egiteko aukeren menpe zegoen eta, gainera, udalaren planeamendua berraztertze aurreikuspenak zeuden. Hori zela-eta, udalari industrialdea sustatzeko hitzarmen bat

aurkeztu zitzaion; horretaz gain, hitzarmenak Tafallako ingurunean egin daitezkeen hiri garapenerako beharrezkoak diren azpiegituren trazatuen alde aurretiko azterlana egiteko asmoa zuen garapen horiek koordinatzeko irizpideak sortzeko eta garapen horien aurreikuspen finantzarioak hobetzeko. Hitzarmen hori Tafallako Udalarari 2006ko ekainean aurkeztu zitzaion, eta irailaren 22an hitzarmenaren zuzenketa aurkeztu zen.

Nasuinsan ez da udalaren hitzarmenari buruzko erantzun formalik jaso; hala ere, Tafallako hiriguneko hegoaldeetik egiten litzatekeen ekialdetik mendebalderako balizko saihesbide baten trazadurari eta horrek industrialdearen planeamenduan eta Tafallako planeamenduaren berrikuspenean izanen litzuzkeen ondorioei buruzko azterlanak barnean aurreratu dira.

#### **2. galdera.**

Jarduketaren kokalekua ezin da zehaztu hainbat arrazoiengatik: garapenaren alternatibek eta azpiegituren finantzaketak baldintzatzen dute kokalekua; hitzarmenean horiek aztertzea proposatzen da. Bestalde, kokalekuari buruzko informazioak, ezagutu arren, lurzoruaren kudeaketa zailduko luke; gainera, horri buruzko informazioa isilpean gorde behar dugu udalarekin partekatutako erantzukizuna delako.

Hedadurari dagokionez, ia 100 hektarea izanen litzuzketen alternatibak aztertu dira. Dotazioak industrialde batean estandarrek direnak izanen lirateke, Nasuinsak bere garapenetan erabili ohi dituen irizpideen arabera.

Une honetan ez da ezagutzen betetzeko epea; izan ere, udalak oraindik ez du irizpiderik finkatu azterlan eta proiektuekin jarraitzeko.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko abenduaren 22an

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilaria: José Javier Armendáriz Quel

## Galdera, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak Murugarrenko Kontzejuari 2003tik 2006ra bitarte emandako laguntza edo dirulaguntzei buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak Murugarrenko Kontzejuari 2003tik 2006ra bitarte emandako laguntza edo dirulaguntzei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko abenduaren 1eko 108. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2006ko abenduaren 29an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera bat egin du jakiteko departamentu horrek zer laguntza edo dirulaguntza eman dizkion Murugarrenko Kontzejuari 2003ko urtarrilaren 1etik 2006ko azaroaren 28ra. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko abenduaren 20an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: José Andrés Burguete Torres

DEIERRIKO UDALEKO MURUGARRENGO KONTZEJUARI				
2003KO URTARRILAREN 1ETIK 2006KO AZAROAREN 28RA EMAN DIZKION LAGUNTZAK EDO DIRULAGUNTZAK				
EMAKIDAREN URTEA	DIRULAGUNTZAREN XEDEA	ZENBATEKOA	ZIOA	ORDAINKETA EGUNA
2003	Unzalin sakana bideratzeko 1. fasea	60.449,00 €	Toki entitateentzako laguntzen araubidea 2003an Nafarroako Foru Komunitateko ibaiak eta sakanak bideratzeko eta babesteko eta urtegi txikiak konpontzeko eta hobetzeko (azaroaren 25eko 1842/2002 Foru Agindua)	2004/01/13
2004	Unzalin sakanako 2. fasea	61.369,30 €	Toki entitateentzako laguntzen araubidea 2004an Nafarroako Foru Komunitateko ibaiak eta sakanak bideratzeko eta babesteko eta urtegi txikiak konpontzeko eta hobetzeko (apirilaren 11ko 132/2004 Foru Agindua)	2004/12/31
2005	San Cristobal sakana egokitzeko obrak	158.356,00 €	Murugarrenko kontzejuarekin sinaturiko lankidetzaren hitzarmena (apirilaren 26ko 362/2005 Foru Agindua)	2005/12/31
2006	ibaiak hobetzea eta obra hidraulikoak Sakana bideratzea	365.007,29 €	Toki entitateentzako dirulaguntzen deialdia ibaiak hobetzeko eta obra hidraulikoetarako (apirilaren 7ko 116/2006 Foru Agindua) 2006ko apirilaren 28ko 51. NAO argitaratu zen	Ordaindu gabe
			Dirulaguntza ordaintzeko obra ziurtagiriak eta fakturak aurkeztu dira	

## **Galdera, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Murugarrengo Kontzejuari 2003tik 2006ra bitarte emandako laguntza edo dirulaguntzei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak Murugarrengo Kontzejuari 2003tik 2006ra bitarte emandako laguntza edo dirulaguntzei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko abenduaren 15eko 108. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako Juan José Lizarbe jaunak galdera egin du departamentu honek Murugarrengo Kontzejuari 2003ko urtarrilaren 1etik 2006ko azaroaren 28ra eman dizkion laguntza

edo dirulaguntzei buruz. Hona Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Galdera:

Zer laguntza edo dirulaguntza eman dizkio departamentu horrek Deierriko Udaleko Murugarrengo Kontzejuari 2003ko urtarrilaren 1etik 2006ko azaroaren 28ra? Zehaztu laguntza bakoitzaren xedea, zenbatekoa eta justifikazioa.

Erantzuna:

Aipatutako epean Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak ez dio Murugarrengo Kontzejuari inolako laguntza edo dirulaguntzarik eman.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko abenduaren 27an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak bidezainen etxeak izenekoetan egindako jarduketei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Nafarroako Gobernuak bidezainen etxeak izenekoetan egindako jarduketei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko azaroaren 10eko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du jakiteko "bidezainen etxeak" direla-eta zer urrats egin diren eta zertarako erabiliko diren. Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna.

Nafarroan etxe horietan egin diren jarduketa mota guztiei buruz eta etxe horien betetze-egoerari buruz dugun informazioa erantsi dugun ondoko koadroan agertzen da:

Zaintza Zerbitzuaren menpeko lokalen betetze-egoera										
ZENTROAK	Beste erakunde batzuek	Biltegiak	Bulegoak	Etxebizitzak	Guztira (1+2+3+4)	Jarduneko funtzionarioak	Bestelakoak	Guztira (6+7)	Libreak	GUZTIRA
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
	11	0	1	3	15	3	3	6		
<b>Agoitz</b>	4	3	1	1	9	1	2	3	0	21
<b>Nabaskoze</b>	0	1	0	2	3	0	5	5	12	24
<b>Erronkari</b>	17	1	0	0	18	0	1	1	3	11
<b>Zubiri</b>	32	5	2	6	45	4	11	15	0	19
<i>Batura partziala</i>									15	75
	1	1	2	6	10	4	1	5		
<b>Lizarra</b>	11	1	0	1	13	1	1	2	24	39
<b>Los Arcos</b>	0	0	0	0	0	0	1	1	5	20
<b>Allo</b>	12	2	2	7	23	5	3	8	1	2
<i>Batura partziala</i>									30	61
	3	1	1	2	7	1	0	1		
<b>Irurtzun</b>	4	1	0	0	5	1	3	4	12	20
<b>Alsatsu</b>	7	2	1	2	12	2	3	5	10	19
<i>Batura partziala</i>									22	39
	6	1	1	4	12	6	2	8		
<b>Mugairi</b>	6	1	1	4	12	6	2	8	0	20
<i>Batura partziala</i>									0	20
	2	1	0	5	8	8	9	17		
<b>Iruña</b>	2	1	0	5	8	8	9	17	3	28
<i>Batura partziala</i>									3	28
	2	1	2	8	13	5	19	24		
<b>Tafalla</b>	5	1	0	2	8	1	2	3	1	38
<b>Zangoza</b>	7	2	2	10	21	6	21	27	9	20
<i>Batura partziala</i>									10	58
	3	1	1	1	6	9	0	9		
<b>Tutera</b>	3	1	1	1	6	9	0	9	25	40
<i>Batura partziala</i>									25	40
	69	14	9	35	127	40	49	89		
<b>GUZTIRA</b>									105	321

Noizean behin erabil daitezkeen lokalek –osotara 105–, askotan, ez dituzte betetzen etxebizitzatzat kalifikatzeko beharrezkoak diren bizigarritasun-baldintzak eta, oro har, etxebizitza bezala erabiliak izateko inbertsio handiak beharko lirarteke; beraz, oso zaila da lokal horiek merkatuan jartztea.

Eraikinen parkea, jabego publikoko ondasuna den aldetik, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari atxikita dago; departamentua bere plantilla berregituratzen ari da. Errepideak zaintzeko eredu berria ezartzen ari da, eta, ziurrenik, ukitutako jabetzen egitura eta erabilera aldatu beharko da; izan ere, eredu berriak bulego eta garajeak egiteko lokal gehiago eta langile gutxiago beharko ditu.

Aurreikuspen horiek kontuan izanik, agertutako helburu publiko berriei eskura dauden baliabideekin egin behar zaie aurre. Arlo horretan, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak Tuteran, Tafallan, Zubirin eta Irurtzunen lurralde bulegoak jartzeko aukera azaldu berri du. Horrekin lotuta, kontuan izan behar da foruzaingoa eskualde gehiagotara hedatzeak eskura dauden higiezin batzuk foruzaingoari esleitzea ekar dezakeela.

Etxe hauen balizko lagapenari buruz, bidezkoa da adieraztea, lehen egin den bezala, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak eta Lehendakaritza, Justizia eta Barnekoak suhiltzaile eta bidezainen etxeak dauzkatela atxikirik eta erabiltzen dituztela; izan ere, Nafarroako ondareari

buruzko irailaren 27ko 17/1985 Foru Legearen 51.2 artikuluari jarraikiz, departamentu hauei dagokie etxebizitza horien erabilera. Etxebizitza horiek atxikirik duten erabileraren arabera, jabego publikoko ondasunak dira eta, beraz, erabilgaitzak. Etxebizitza horien erabilgarritasuna mugaturik dago, bestalde, badirelako funtzionario batzuk etxebizitza horietan bizitzeko eskubidea/beharkizuna dutenak haien araubide juridikoak hala aginduta, eta etxebizitzek xedapen hori betetzea dute atxikirik; beraz, etxebizitzak erabiltzeko edozein ekintza baino lehen erregelamenduzko xedapen hori atzera bota beharko litzateke. Izan ere, ondare higiezin hori besterenduz gero, eskubide horiei erantzuteko beste higiezin batzuk eman beharko litzazkieke, eta horrek ez luke zentzurik. Horren haritik, aipatu behar da, izan daitekeen balizko eraginagatik, funtzionario horiek etxebizitzak lehentasunez eskuratzeko eskubidea dutela.

Etxebizitzak hirugarrenei eskualdatzeari dago-kionez, adierazi behar da etxebizitzen izaera juridikoak ez duela aukerarik ematen eskualdatzeko, Nafarroako Gobernuaren betebeharra eta esku-

mena diren interes publikoen zerbitzura daudela-ko. Hori horrela bada ere, denboran zehar, etxebizitza horien besterengarritasun edo lagapenari buruzko kontsulta batzuk izan dira; hala ere, gaur arte ezin izan zaie asmo horiei erantzun.

Egungo erabilera da, beraz, aipatu interes publikoa asebetetzea. Beti ere, lehen esan den bezala, hutsik gelditzen diren heinean edo etxebizitza horien desatxikitzea ematen bada, beren azalera eta kokapenarengatik dituzten aukerak baztertu gabe.

Azkenik, jabego publiko diren aldetik, aipatu behar da etxebizitza horien kudeaketak ez duela inolako dirusarrera likidorik sortzen.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14.3. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2006ko abenduaren 28an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

## **Galdera, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak Nafarroako udalekin obrak edo zerbitzuak finantzatzeko aldera inolako akordio, konpromiso edo itunik hartu edo egin duen jakiteko.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak galdera egin du Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak Nafarroako udalekin obrak edo zerbitzuak finantzatzeko aldera inolako akordio, konpromiso edo itunik hartu edo egin duen jakiteko.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko abenduaren 22ko 113. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari José Luis Izco

Biarge jaunak galdera egin du 2007. urtearen ondorengo urteetako aurrekontuen kargura lanak edo zerbitzuak finantzatzeko Nafarroako hainbat udalekin sinatu diren hitzarmen, konpromiso edo itunei buruz. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak ez du inolako hitzarmen, itun edo konpromisorik sinatu 2007. urtearen ondorengo urteetako aurrekontuen kargura toki entitateen lanak edo zerbitzuak finantzatzeko.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko abenduaren 28an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: José Andrés Burguete Torres

## **Galdera, Artaxoako udalerrian herrilurrak desafektatzeko espedientea tramitatzeari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak galdera egin du Artaxoako udalerrian herrilurrak desafektatzeko espedientea tramitatzeari Artaxoako udalerrian herrilurrak desafektatzeko espedientea tramitatzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko abenduaren 22ko 113. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra, Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako José Miguel Nuin jaunak 2006ko abenduaren 14an galdera –401/2006– egin zuen Artaxoan industrialde bat egiteko udalerriko herri-lurrak desafektatzeko espedientearen izapidetzeari buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

– Izapidetzearen zein egoeratan dago aipatu espedientea Nafarroako Gobernuan?

2004ko irailaren 3an, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuko Nekazaritzako Azpiegituren Zerbitzuan Artaxoako Udalak aurkeztutako eskaria sartu zen. Eskari horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da dagokion baimena eman dezan; izan ere, Artaxoako Udalak industrialde bat sortzeko asmoa du eta, horretarako, zenbait herrilur partikularren lurrekin trukatu nahi ditu.

2005eko ekainaren 21ean, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuko erregistroan Artaxoako Udalak aurkeztutako hainbat dokumentazio sartu zen. Hala ere, 2005eko uztailaren 1ean, Nekazaritzako Azpiegituren Zerbitzuak ofizio bat bidali zuen espedientearen hainbat gabezi adieraziz; gabezi horiek espedientearen izapideekin jarraitzea galarazten zuten. Gabezi horietako batzuk Artaxoako Udalak beranduago arte (2006ko martxoaren 20ra arte) ez zituen zuzendu.

2006ko martxoaren 20an, Nekazaritzako Azpiegituren Zerbitzuko erregistroan herrilurrak des-

afektatzea, ondoren trukatzeko eskatzen zuen espedientea sartu zen.

Artaxoako Udalak txosten bat eskatu zion Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko Biodibertsitatea Zaintzeko Zerbitzuko Oihanak Kudeatzeko Atalari.

2006ko apirilaren 26an, Oihanak Kudeatzeko Atalak egindako txostena Herrilurren Atalean sartu zen. Trukatu nahi diren azpilurzatietako batean arazo bat azaldu zen. 2006ko maiatzaren 12an, Nekazaritzako Azpiegituren Zerbitzuak txosten hori Artaxoako alkateari bidali zion.

2006ko uztailaren 17an, Artaxoako Udalak, sortutako arazoari buruzko beste konponbide bat planteatu eta gero, dokumentazioa formalki aurkeztu zuen.

2006ko uztailaren 27an, Nekazaritzako Azpiegituren Zerbitzuak Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari ingurumenaren eta/edo hirigintzaren ikuspegitik egon daitezkeen eragozpenei buruzko txosten bat bidali zion.

Abuztuaren 11n, Oihanak Kudeatzeko Atalak egindako txostena Herrilurren Atalean sartu zen. Txostenean adierazi zen ez zegoela inolako eragozpenik lurren trukatzea egiteko.

2006ko urriaren 9an, Ingurumenaren Integrazio Zerbitzuak txosten bat egin zuen honakoa adieraziz: "egin beharreko jarduera Ingurumena babesteko esku-hartzeari buruzko 4/2005 Foru Legeari jarraikiz baimendu behar da; hori dela-eta, jarduera lege horretan ezarrita dagoen administrazio-prozeduraren arabera baimendu behar da". Txostenak honakoa ere esaten du: "jardueraren ingurumenari buruzko balorazio egokia eginen da sustatzaileak beharrezkoa den dokumentazioa emanaz aipatu izapideak hasi eta gero".

2006ko abenduaren 18an, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzuak txosten bat bidali zuen honakoa adieraziz: "gaur egun, departamentuan ez da izapidetzen ari dokumentazioan aipatutako industrialdea; beraz, ez dugu eskura beharrezkoa den informazioa hirigintzaren ikuspegitik eragozpenik dagoen zehaztu ahal izateko..."

Hortaz, desafektatzeko espedientearen ebazpena ezin da egin, udalak, espedienteak izapidetu

ondoren, aipatu bi zerbitzuek emandako aldeko txostenak lortu arte.

– Noiz igorriko du Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentura desafektazioari buruzko foru lege proiektua?

Arestian aipatu eta beharrezkoak diren desafektazioaren aldeko txostenak jaso bezain laster, interes publikoa baloratuko da eta, ondoren, kasua

bada, desafektazioari buruzko foru lege proiektua eginen da.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 9an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: José Javier Echarte Echarte

---

## **Galdera, Toki Administrazioako Departamentuak Nafarroako udalekin obrak edo zerbitzuak finantzatze aldera inolako akordio, konpromiso edo itunik hartu edo egin duen jakiteko.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak galdera egin du Toki Administrazioako Departamentuak Nafarroako udalekin obrak edo zerbitzuak finantzatze aldera inolako akordio, konpromiso edo itunik hartu edo egin duen jakiteko.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko abenduaren 22ko 113. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak galdera egin du jakiteko Toki Administrazioako Departamentuak Nafarroako

udalekin obrak edo zerbitzuak finantzatze aldera inolako akordio, konpromiso edo itunik hartu edo egin duen. Hona Toki Administrazio kontseilari eta Nafarroako Gobernuaren eledunaren erantzuna.

Toki Administrazioako Departamentuak, 2006ko maiatzaren 25ean Iruñeko Udalarekin sinatutako asmoen protokoloaren bidez, Mendillorriko bidea (Monjardín eta Eguesibar kaleen luzapena) eraikitzeke eman behar dituen 4,5 milioi eurotatik % 20 2008. urtean finantzatzeko konpromisoa hartu zuen. Mendillorri Iruñean sartzeko 1998an sinatutako hitzarmenean ezarritakoa betez, jarduketak hiru ekitaldi hartzen ditu –2006-2008–, eta Nafarroako Gobernuak 4,5 milioi euro ordainduko du, horietatik % 20 2008ko ekitaldian.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2007ko urtarrilean

Toki Administrazioako kontseilari eta Nafarroako Gobernuko eleduna: Alberto Catalán Higuera

## **Galdera, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak Nafarroako udalekin obrak edo zerbitzuak finantzatze aldera inolako akordio, konpromiso edo itunik hartu edo egin duen jakiteko.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak galdera egin du Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak Nafarroako udalekin obrak edo zerbitzuak finantzatze aldera inolako akordio, konpromiso edo itunik hartu edo egin duen jakiteko.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko abenduaren 22ko 113. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak, 2006ko abenduaren 11n galdera egin zuen jakiteko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak Nafarroako udalekin obrak edo zerbitzuak finantzatze aldera inolako akordio, konpromiso edo itunik hartu edo egin duen. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak mota horretako lankidetzak hitzarmen bakarra garatu du, Metautengo udalarekin, Boiluraren interpretazio Zentroa finantzatzeko eta abian jartzeko.

Hitzarmena maiatzaren 16ko 594/2006 Ebazpenaren bidez onetsi zen eta departamentu honek, landa eremuen garapenaren barruan, Nafarroako nekazaritzari buruzko plan estrategikoa betetze aldera egiten dituen jarduketetako bat da, bereziki, nekazaritzako elikagaien produkzioaren balioaren kateari, nekazarien errentak hobe-

tzeari eta nekazaritza jarduera iraunkorrak bultzatzeari dagokienez.

Metautengo Udalak sustatutako proiektuaren oinarriak dira dibertsifikazioa eta baliabide endogenoek eskualdeko landa garapenerako tresna gisa balioa ematea; helburu horiek bat datoz departamentuak bere landa garapenerako politikan dituenekin. Era berean, garapen turistikoa eta ekonomiko iraunkorra eta proiektuan inplikaturiko eskualdeen hobekuntza ekonomiko eta soziala bilatzen ditu.

Hitzarmen hori finantzatzeko, 2006ko Nafarroako Gobernuaren aurrekontu orokorreko "Metautengo boiluraren interpretazio zentrorako transferentziak" izeneko 721000-72210-7609-4131000 kontusaila erabili zen. Dirulaguntzak aurreikusten ditu zentroko eraikina egiteko beharrezkoak diren jarduketak, etorkizunean funtzionatzeko behar dituen instalazioak eta interpretazio zentroaren hornidura.

Emandako dirulaguntza 75.000 eurokoa da eta, horietatik, 60.000 euro hitzarmena onesteko ebazpena sinatzean ordaindu dira eta gainerako 15.000 euroen ordainketa orain egin da, egindako inbertsioak berrikusi eta egiaztatu eta haiek frogatzen dituzten agiriak bat datozen ziurtatu ondoren, Dirulaguntzei buruzko 11/2005 Foru Legean ezarritakoari jarraikiz.

Hitzarmena 2006. urtean baino ez da indarrean egon, eta gaur egun iraungitza hartzen da.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 8an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: José Javier Echarte Echarte



## **Galdera, Toki Administrazioiko Departamentuak Murugarrengo Kontzejuari 2003tik 2006ra bitarte emandako laguntza edo dirulaguntzei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Toki Administrazioiko Departamentuak Murugarrengo Kontzejuari 2003tik 2006ra bitarte emandako laguntza edo dirulaguntzei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2006ko abenduaren 15eko 108. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko urtarrilaren 12an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du Murugarrengo Kontzejuari eragiten dioten zenbait auziri buruz. Hona Toki Administrazio kontseilari eta Nafarroako Gobernuaren eledunaren erantzuna.

Zer laguntza edo dirulaguntza eman dizkio departamentu horrek Deierriko Udaleko Murugarrengo Kontzejuari 2003ko urtarrilaren 1etik 2006ko azaroaren 28ra? Zehaztu laguntza bakoitzaren xedea, zenbatekoa eta justifikazioa.

1. Murugarrengo Kontzejuak, 2004rako toki azpiegituren plan berezia onetsi zuen 2003ko ekainaren 16ko Nafarroako Gobernuaren Erabaki-

ari jarraikiz (2003ko uztailaren 91. NAO on argitaratua), eta 169.973,37 euroko ekarpena lortu du kaleei zoladura eman eta sareak partzialki berrietzeko; inbertsioa, guztira, 358.834,28 eurokoa da. Orain arte, departamentuak obra hasteagatiko ekarpenaren % 10 ordaindu du, 16.980,34 euro, hain zuzen.

2003ko ekainaren 16ko Erabakia, azaroaren 19ko 30/2002 Foru Legearen bidez onetsitako 2004rako plan berezia betetzeko hartu zen; foru lege hori 2002ko azaroaren 25eko NAO on argitaratu zen eta, bertan, planean sar zitezkeen toki entitateen artean, Deierriko Udalaren barnean, Murugarrengo Kontzejua agertzen zen.

Plan berezia 2002ko abenduaren 16ko Erabakiaren bidez egin zen (2003ko otsailaren 7ko NAO), eta arestian aipatutako obra laguntza jaso zezaketen obren artean agertzen zen.

2. Ez da Murugarrengo Kontzejuaren inolako obrarik sartu 2005-2008 eperako toki azpiegituren planean edo bere handitzean, ez foru lege baten bidez berriki onetsi den 2005-2008 eperako plan berezian ezta ezinbesteko eginbeharretarako, aitortutako presako edo ustekabe koetarako prozeduretan ere.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2007ko urtarrilean

Toki Administrazioiko kontseilari eta Nafarroako Gobernuko eleduna: Alberto Catalán Higuera

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Nafarroako Parlamentuko administrazioaren antolaketari buruzko erregelamendua aldatzea.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko apirilaren 19an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko administrazioaren antolaketari buruzko Erregelamendua aldatzeko proposamena, legelari nagusiak aurkezturikoa, eta bere txostena ere ikusirik, bai eta Eledunen Batzarraren txostena ere, eta Legebiltzarreko erregelamenduko 69.1 artikuluari nahiz Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko hirugarren xedapen gehigarriari jarraikiz, ERABAKI DA:

**1.** Nafarroako Parlamentuko administrazioaren antolaketari buruzko erregelamenduaren aldaketa onestea. Testua erabaki honekin batera doa.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2007ko apirilaren 19an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

### **Nafarroako Parlamentuko administrazioaren antolaketari buruzko erregelamendua aldatzea**

**Artikulu bakarra.** Jarraian zehazten diren Nafarroako Parlamentuko administrazioko antolaketari buruzko erregelamenduko idatz-zati edo artikuluetan honako aldaketa hauek sartzea:

#### 12.2. artikulua.

Erregelamenduko 12. artikuluko 2. idatz-zatian l) letra aldatzea eta m), n), ñ) eta o) letra berriak gehitzea. Gaur egungo m) letra pasako da p) izatera. Hona haien testua:

“l) Parlamentuaren jarduera garatzeko prozedurak behar bezala gauzatu ahal izateko beharrezkoak diren azpiegituren eta aplikazio informatikoen plangintza eta kudeaketa.”

m) Aipaturiko azpiegitura eta aplikazio informatikoak eskuratu, ezarri, mantendu eta garatzea, behar diren bitarteko bereki edo kanpokoekin.

n) Parlamentuko sistema informatikoen segurtasuna bermatzea, bai eta bertako erabiltzaileek sistema horiek erabili ahal izatea ere.

ñ) Foru parlamentariei, funtzionarioei eta parlamentu-taldeetako langileei prestakuntza eta laguntza ematea ekipamenduen erabilerari eta aplikazio informatikoen funtzionamenduari dagokienez.

o) Informazioa kanpora zabaltzeko euskarri informatikoa kudeatzea.

#### **16.2. artikulua.**

16. artikuluari beste idatz-zati bat, 2. bis, gehitzea, testu honekin:

“2. bis. Bereziki, teknikari informatikoei dagokie 12. artikuluko 2. idatz-zatiko l), m), n), ñ) eta o) letrek aipatzen dituzten eginkizunak bete ahal izateko beharrezkoak diren jardueraz arduratzea.

Langileen Estatutuak ezarritakoari jarraituz, aipaturiko jarduera horien artean, teknikari informatikoen oinarritzko eginkizun profesionalak dira, haien eskalaren arabera, honako hauek:

– Goi mailako teknikarien eskala: sistema eta baliabide informatikoak aztertu, taxutu eta zehaztea dagokie. Halaber, kudeaketa eta administrazio eginkizunetan teknikari diplomadunekin lankidetzan ariko dira.

– Teknikari diplomadunen eskala: sistema eta baliabide informatikoak kudeatu eta administratzea dagokie. Horrez gain, azterketa, taxuketa eta zehazte eginkizunetan goi mailako teknikariei laguntza emanen diete.

Bestalde, teknikari informatiko guztiei dagokie zerbitzuaren berezko eginkizunekin zerikusia daukan eta beren prestakuntzaren arabera zerbitzuruak agindu ahal dien beste edozein lanbide-eginkizun.

19. artikulua.

19. artikulua kentzea.

20.2. artikulua.

20. artikuluko 2. idatz-zatiari lerrokada bat eranstea; honela dio, hitzez hitz:

“Protokoloko teknikariak beteko ditu 17. artikuluko f), g), h) eta i) letrek aipaturiko eginkizunak, zabalkunde eta kultur jarduerak proposatu eta

kudeatzea, eta ekitaldi instituzionalak nahiz Nafarroako Parlamentuko protokoloarekin zerikusia daukaten jarduerak antolatu eta kudeatzea, ezertan eragotzi gabe zerbitzuak berezko dituen gainerrako jarduerak, zerbitzuburuak protokoloko teknikariari bere prestakuntzaren arabera agindu ahal dizkionak.

**Azken xedapena.** Aldaketa honek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

## Nafarroako Parlamentuko plantilla organikoa aldatzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko apirilaren 19an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren bulegoko funtzionarioen plantilla aldatzeko proposamena, erakunde horren titularrak eginikoa, bai eta Nafarroako Parlamentuko administrazioaren antolamenduari buruzko erregelamenduko 19. artikulua ezabaketa ere, zeinak protokolo buru-

tza jasotzen baitzuen, plantilla organikoan agertu beharrekoa, bai eta legelari nagusiak eta Eleduen Batzarrak eginiko txostenak ere, hona Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 14. 1 artikulua ezarritakoari jarraikiz harturiko ERABAKIA:

**1.** Nafarroako Parlamentuko plantilla organikoa aldatzea, Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzuari dagokionez. Honela geldituko da plantilla:

	Kop.	Maila	Izen. lib.	Esklusi-bitatea	Batera-egintzatasuna	Lanpostua	Maila-osag.
<b>PRENTSA, ARGITALPEN ETA PROTOKOLO ZERBITZUA</b>							
Prentsako burua	1	A		55		58	
Itzultzaileak	5	A		55		12	
Protokoloko teknikaria	1	B			35	28	
Administrariak (*)	2	C				41,68	12
Transkriptoreak (*)	6	C				41,68	12

**2.** Nafarroako Parlamentuko plantilla organikoa aldatzea, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren bulegoko funtzionarioei dagokienez. Honela geldituko da plantilla:

### NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ARARTEKOAREN BULEGOA

	Kop.	Maila	Izen. lib.	Esklusi-bitatea	Batera-egintzatasuna	Lanpostua	Maila-osag.	Berariazko osag.
Goi mailako teknikaria	1	A			35	28		
Administrazio kudeaketako teknikaria (***)	1	B			35	28		20
Administrariak	2	C				41,68	12	
Gelazaina	1	D				32	15	

(\*\*\*) Berariazko osagarri hau esleitzen da kontu-hartzailetzari eta bulegoko kudeaketaren ardurari dagozkien eginkizunak betetzeagatik.

**3.** Plantilla organikoaren aldaketa hauek eragina izanen dute 2007ko maiatzaren 1etik aurrera.

**4.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldiz-

kari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2007ko apirilaren 19an

Lehendakaria, Rafael Gurrea Induráin

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete ..... 45,15 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko ..... 1,18 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko ..... 1,34 »	